



2020ko EPEREN AURREIKUSITAKO EGUTEGIA ATZERATZEA

COVID-19 koronabirusak eragindako osasun-larrialdiko egoerari aurre egiteko martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaraturako alarma-egoerak administrazio-epeak etetea ekarri du, hautaketa-prozedura honetarako ezarritako eskabideak aurkezteko epea barne. Era berean, kontuan hartuta alarma-egoera luzatu egin dela eta gisa honetako prozedura batean mantendu behar den osasun-segurtasuna uneoro bermatu beharrekoa dela, 2020ko apirilaren 8an oposizio-faseko lehen probaren data atzeratuko zela iragarri zen (proba hori 2020ko ekainaren 20rako aurreikusita zegoen).

Azken batean, egungo egoerak EPE hau garatzeko aurreikusitako egutegi osoa atzeratzea dakar, 2020ko apirilaren 29tik maiatzaren 11ra bitartean aurreikusita zegoen programazio didaktikoa eta merezimenduak justifikatzeko dokumentazioa entregatzeko epea barne.

Hezkuntza Sailaren web orrian emango da data eta epe berriei buruz hartzen diren erabakien berri, betiere egungo osasun-krisiaren bilakaeraren arabera.

Gasteizen, 2020ko apirilaren 17